

## **ADIERAZPENA: Erasotzailerik gabe, erasorik ez**

#metachodemacho mugimendua, jai egiazki berdinzale  
eta bortizkeria matxistarik gabekoen alde.

Nork esan lezake nolakoak izan behar duten gizonezkoek, gizonezko izate hutsagatik? Ez dago maskulinitate-eredu bakarra eraikitzeke araubiderik, gizon izateko modu bakarra ez dagoen bezala. Jaiotzen garen unetik beretik rol bat hartzen erakusten zaigu; nola-halako sotiltasunez bada ere, gizarteak gutaz zer espero duen erakusten zaigu: izatea indartsu, sendo, ausart, lehiakor, seguru, bizitzeko behar ditugun hornitzaile, eta abar. Gizonezkoek ere mugatuta egon gara, "bere sexuari dagozkien" rolak bereganatzera bideratuta, eta, horren ondorioz sarritan harreman desorekatuak sortzen dira, askotan arriskutsuak. Eta jaietan ere bai, berdin-berdin.

Emakumeak mendetako lehian ari dira beren eskubideak aldarrikatzen, eta Iruñean, zehazki, oso tinko ari dira borrokan jaiak denondako leku izan daitezen, non biztanleriaren erdia kalera atera ahal dadin, batere beldurrik gabe. Gizarte berdinzaleek baitan hartzen dituzte pertsona guztiak, eta guztiei ematen diete onura; **berdintasuna ez da bakarrik emakumeen afera.**

Horregatik, Iruñeko peñetako gizonezkoek gogorazi nahi dugu eraso sexistak ekiditeko gakoa erasotzailerik egon ez dadin lortzea dela, ez espazio publikoetan, ezta pribatuetan ere. Eta hori gizonezkoen zuzen-zuzen dagokigun erantzukizuna da: onartzen dugu gure zeregina funtsezkoa dela gizarte berdinzale eta indarkeriarik gabekoa eraikitzerakoan. Gure nahia da pertsona guztiek izan dezatela eskubidea eta aukera askatasun osoz hazteko eta jaiak baldintza beretan gozatzeko.

Horregatik guztiagatik, Iruñeko Peñen Federazioak **bat egiten du** #metachodemacho **mugimendurekin**, estereotipo matxisten aurka eta beste maskulinitate-eredu batzuen bila, baita jaietan ere. Konpromisoa hartzen dugu horren aldeko jarrera hartzeko, eta gizarte berdinzale eta bortizkeriarik gabekoa erdiesteko borrokan diharduten emakumeekin bat egiteko.

Gure jokamoldea **kolokan jartzeko** konpromisoa hartzen dugu, nola eguneroko egintza xumeenak, hala jokabide matxista agerikoenak ere. Benetako berdintasuna bilatzeko asmoz, guk, gizonok, ikasitako **gure rol** horiek berraztertuko ditugu. Ez dago ondorioz gabeko keinu edo hitzik. Aitortzen dugu **berdintasuna** gizonezkoen afera ere badela, argi eta garbi aitortu ere, eta ohartzen gara konpromiso hori berdintasunera iristeko tresna dela.

Indarkeria matxistarik gabeko jaien alde, sanferminetako peñek bat egiten dugu borroka feministarekin, eta esan nahi dugu, ozen eta argi esan ere: **#metachodemacho. Gizonkeriatik gizontasunera!**

## Nola ekin konpromiso honi?

Horretarako, ahaleginduko gara gure inguruan maskulinitate-eredu berdinzale eta osasuntsuei buruz **hausnartzeko guneak** eskaintzen. Gizonezkoei zuzendutako lana indartuko dugu, **portaera matxistak prebenitzeko** asmoz, eta gizarte berdinzaleen oinarriak diren baloreak sustatuko ditugu. Nola?

Iruñeko Peñen Federazioan aitortzen dugu gure jarrera argi adierazteko eta peñen barruan berdintasunezko harremanak sustatzeko beharra. Berdintasunaren aldeko konpromisoa hartzen dugu gure gain, eta kolokan jartzen ditugu estereotipo eta rol maskulino inposatuak, gzaratearendako kaltegarriak izan daitezkeenak.

### NOLA?

- ✓ Adierazpen honi eta #metachodemacho berdintasunaren aldeko gizonezkoen mugimendura atxikiaz, eta gizarte berdinzale baten aldeko gure konpromisoa publikoki agerraraziz.
- ✓ Mugimendua gure peñetan ezagutarazi eta sustatuaz, kamiseta eta beste ikur batzuen bitartez.
- ✓ Beste kolektibo eta gizonezko batzuei #metachodemacho mugimenduarekin bat egiteko gonbitea eginez.

“Beste maskulinitate-eredu” batzuk sustatuko ditugu gure guneetako adin guztietako gizonen artean urte osoan zehar. Hausnarketa sakona sustatu nahi dugu gizonok gizonezko garen aldetik ditugun ohituren inguruan, eta birplanteatu egin nahi dugu gure jokamoldea, berdintasunezko harreman osasuntsuak eskuratzeko bide gisa.

### NOLA?

- ✓ Beste maskulinitate-eredu batzuk lantzeko asmoz, adin guztietako gizonezkoei zuzendutako lantegien antolaketa sustatuz.